

# Ez dirudi pertsonaia hau haserre dagoenik...



ELKARRIZKETETAKO bunbuiloetan hitzak behar bezala kokatzeko, testuaren eta marrazkiaren arteko orekari eusteko, pertsonaien keinuak sinesgarri egiteko, onomatopeiekin gustuko efektua lortzeko eta lerro zinetikoak –irudiei mugimendua gehitzen dioten lerroak– zuzen erabiltzeko trikimailuak

jaso ditu Mauro Entrialgo komikigile gasteiztarak *Komikiaren oinarritzko gida. Zure istorioak hobetzeko trikimailuak eta aholkuak* eskuliburuan. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratu du Krea kultur zentroak, eta sortzaile hasiberriei zuzendurik dago bereziki. Dena den, Entrialgok dioenez, edonork ikas dezake zerbait gida horrekin, edo, gutxienez, bi minutuz dibertitzeko balio diezaioke.

Aholku gutxi bildu ditu Entrialgok. Oso praktikoak dira, ordea. “Tbilian ikas daitezkeen plano motak, elipsiak eta beste tentelkeria batzuk ez ditut aipatu. Askoz ere garrantzitsuagoa da, adibidez, hitzak bunbuiloetan zuzen sartzeko zer egin behar den jakitea”, adierazi digu komikigileak.

Teknika kontrolatu ala ez, komikiak marrazteko aitzakia handirik ez dela behar uste du Entrialgok: “Komikiekin asmatutako gauzak kontatu daitezke, baina ez hori bakarrik. Zuri gertatutako zerbait (jolas parke batera egindako bisita, mendi ibilaldian ikusitakoak...) edo egiten daki-zun zerbait (postre baten errezeta...) ere des-

Gasteizko Krea kultur zentroak *Komikiaren oinarritzko gida* argitaratu du. Mauro Entrialgo komikigileak dozena erdi trikimailu eta aholku bildu ditu eskuliburu txiki horretan.

JON TORNER

kriba daitezke, adibidez”. Eta gauzak kontatu, kontatzen dira. Baina ez omen gara horretaz jabetzen, komikiak ihesbide soila direla uste dugulako. “Hori ez da egia. Hizkuntz eskoletan komikiak erabiltzen dira, egunkarietako infografiek komikien ohiko baliabideak erabiltzen dituzte, umore grafikoa

komikiaren adar bat da, sekta batzuek komiki bidez erakartzen dituzte jarraitzaileak...”

Komikien presentzia uste baino handiagoa da, baina irakurle gutxi dituzte. Zergatik? Entrialgo saiatu da gure galderari erantzuten: “Hasteko, kontuan izan behar da liburu eta komikirik irakurtzen ez duen, antzerkita ez doan eta mastekatuta ez datorkion ezer –telebista kasu– interesatzen ez zaion jende mordo dagoela. Ameba hauek albo batera utzita, liburuak irakurtzen dituzten lagunek batez ere ezjakintasunagatik ez diete komikiei

kosk egiten. Pertsona horiei, komikiaren mundura hurbildu nahi izanez gero, adiskide baten edo gidaliburu on baten aholkuei jarraitzea gomendatuko nieke. Komiki denda batera sartu eta zerbait halabeharrez erostea absurdoa da. Inoiz filmik ikusi ez duen pertsona batek, haren harritxiak ezagutzeko kalean topatzen duen lehenengo zinema aretora sartu eta *amerikanada* bat ikustea bezala litzateke”. ■

## Mauro Entrialgoren aholkuak

1. Idatzi hitzak bunbuiloak marraztu aurretik.
2. Sentimendu bat nola marraztu ez dakizunean, jar zaitez ispiluaurrean eta aztertu zure begi, bekain eta ahoak eratzen dituzten lerroak.
3. Beste komiki batzuetan ikusitako eta asmatutako onomatopeiak erabili, istorioari emozioa eta umorea gehitzeko.
4. Lerro zinetikoak istorioak dinamikoagoak bihurtzen dituzte.
5. Zerbait marrazki batekin azaldu badugu, testuan ez dago berriro kontatu beharrik, errepikakorra eta aspergarria litzatekeelako.